

gaur arte

Kalen.

...Urtarril hasierako aurkezpenean ezagutu zintudan, gainerako ikaskide guztiekin batera, eta, bai, erreparatu nuen zure erakargarritasunean; gutxitan gertatzen zait eta, aspaldian, ez. Goitik behera aztertu zintudan; segundo gutxi batzutan irudikatu nuen zure izatea eta... gustatu egin zitzaidan.

Egun hartan, etortzen bezala, joaten ikusi zintudan, besterik gabe, bait banekien, ondo jakin ere, zer ez nuen nahi. Ez nuen nahi inork erakar nidezan; ez nuen ametsetan hasi nahi, badakidalako azkenean, ametsak oro ezereztu egiten direla; horregatik, etortzen bezala, joaten ikusi zintudan. Agurtu nindutenak agurtu nituen eta zu, agurtu gabe, joaten ikusi zintudan. Ondorengo egunetan ez genuen klaseetan bat egin, areto ezberdinetan ikastea egokitu zitzaigun eta; ostegunean, ordea, halabeharrak bata bestearen atzean esertzea ekarri zigun. Zu nire aurrean. Libre begiratu zintudan. Klasea bukatu eta atsedenealdian jarlekutik jaiki ginenean, zerbait galdetu zenidan; ni, esanak zioenari kasurik egin barik, zure ahotsean zintzilikatuta bezala gelditu nintzen eta, "bai" lotsatuaz begietara zuzendu nintzaizun... eta iruditu zitzaidan galderatik harantzagoko zerbait adierazi nahi zidatela zure begiek...eta, agian, nik, "bai" baino askoz gehiago esan nizun ostegun hartan. Lagunak Aratz deitu zintuen, gero, nire hatz erakusleak gelako ateko zerrendan aurkitu : Aratz Etxaburu Labrit. Asko gara Sorbonan euskaldunak.

Ilunabarrean, egunerokoa ireki eta...zer idatziko nuen ba?...ba...hori!
Ez nuela sentitu nahi!

Gaur, ostera, egunerokoaren aurrean geldirik nago, paperari begira, barruko berbak zela josi ez dakidala.

Poliki igaro dira egunak, asteak, berriz ere ostegun hau iritsi arte... Aurreko egunetan zu bazterrean lagatzeko ahaleginetan ibili naiz; ez dut zure berririk izan; ez dizut ninerik igorri; gaur, baina, disimulu antzean bilatu zaitut ikaskideen artean, bilatu, diot, bilatu; eta zuk zeuk aurkitu nauzu. Denbora labur bezain urduri eta estuan esan didazu, urrunetik, hitzik gabe, nik esan nahi izan dizudanaren bikoitza... Izar hautsetan batutako oparia eskaini didazu, eta...zela poztu den nire barrua! amets jantzitan hurbildu zatzaizkit, erotu araziz gogoaz; erantsi didazu beldurra, negarra, eta, bihotza bete, biluztasun epelez jantzi...

...Eseri egin naiz lagunaren ondoan. Ordu eta erdi luzea aurretik barrukoak baretzeko... Baina, zutitu egin zara irakasleak eskatuta eta Inteligentzia Emozionalaren inguruko lana azaldu diguzu, " L'intelligence Emotionale"... Zer eta norberak bere emozioak kudeatzeko gaitasunaren garrantziaz lezioa! Eta ni emozio baten punta-puntan. Sentimendua emozioaren ondoren geratzen den arrastoa dela esplikatut diguzu, emozioaren aldean lasaia baina iraunkorra. Autokontzientziaz ere hitzegin diguzu, sentitzen duguna zer den identifikatu beharraz eta zentzumenak sakonki sentitzearen onuraz...

Badakizu? Apropos niretako prestatua zirudien aurkezpenak, jarri dituzun adibideak... Bi aldiz begiratu zaitut hitzaldiak iraun duen denboran; bietan irribarrea eman didazu...

Azalpena bukatu bezain azkar zutitu eta presaka alde egin dut, presaka bihotza, presaka burua, presaka oinak, presaka... sosegura, pisura. Gaurkoan ez zaitut joaten ikusi; gaurkoan agian, zuk ikusi nauzu, agurrik gabe, joaten.

Eskailerak binaka jaitsi ditut eta kalera irtetzean haizea gelditu egin da, bide ertzetako haritzen ostotsa isildu eta zero lainotuak begiak itxi ditu nire gainean. Distantzia gabeko denboran egin dut atearen beste alderainoko ibilbidea. Buruan, eta gogoan, eta azalean, eta entzutean, eta begietan...zu, zu, zu.

"Berebek ez dakite betik esaten barruak sentitzen duena..." idatzi dut egunerokoan.

Biharkoa irudikatzen ari nintzen telefonoa izan denean, "Aratz, seguru!"...Eta ez... Jaso ditudan berriek aurreikusita zirudien geroa aldatu dute, geroa aurreikusterik ez dagoela bermatuz, eta gutun hau arrazoitu.

...Banoa, Aratz... Ezinbestean. Bilbora. Etxera. Arazo larriak gurean. Bukatu da Paris, eten ametserako denbora. luzerako behar zuen bekaren aukera motz geratu da. Hala ere, hiru hilabete eskasean limurtu nau bizimodu anitza bezain paradoxikoa bereganatzen duen hiriak...eta zuk. Hasten den guzia bukatzen da, baina, eta, hasi gabekoa?...Ametsa zen eta ezereztu egin da.

Agian harritu egingo zara, Rose (Konturatuko zara nire ondoan esertzen den rubia dela) idatzi honekin hurbiltzen zatzaizunean, baina, bera da zuregana iristeko bururatu zaidan aukera errexena eta ia bakarra.

Ez dakit... Hemen utzi nahi ditut neureak bakarrik diren esanak, zurekin, zuretako; hitzetatik harantzagokoak, berba barik adierazitakoak daramatzat nik zugandik.

Kalen Bengoetxea Irizar.

Haritz-zabaleta 18. BILBO.

Euskal Herria.

Aratzek Kaleni.

Iruñean 2006ko apirilaren 11 n.

Kalen,

barrutik ari naiz, barruan zauzkadala idazterakoan.

Ez nuen inoiz uste izango urtarrileko zuganako erakarpena gaur egungo bizi ezina bihurtuko zitzaidanik. Zela pentsa nezakeen ostegun batzuetako ikaskide soil zintudan hori erraietan itsatsia sentitu behar zintudanik... Eta bai, aretotik agurrik gabe alde egin zenuenean ohartu nintzen esateke gelditu zen guztiaz. "Tira!" pentsatu nuen, "hitz egingo diot eta esango..."

Luze, oso luze joan ziren orduak hurrengo eguna iritsi arte. Zure bila ibili nintzen; ezagutzen nuen zure izena: Kalen Bengoetxea Irizar, gelako ateko zerrendan aurkitu zintudan aspaldi baten, begiekin "E, hemen nauzu!" adierazi zenidanean eta nik "zeu zara ezta?" zuri. Zure bila, zure begien esanen bila, zure isiltasunaren erreguan... Zu, ordea, ez zinen azaldu... Noiz esan barrukoak? Zelan gelditu geldiezina?

Beti zure ondoan esertzen den ile-horia ikusi nuenean iruditu zitzaidan zure ez etortzearen arrazoiren bat igorri nahi zidala...

Hurbildu nintzaion zure ustezko lagunari (orain badakit Rose deitzen dela) klasea bukatu ondoren; ordurako hamaika arrazoi ezkor bilatuak neuzkan; ordurako galdu zintudala nekiela zen nekien bakarra; ordurako zerbait mingotsa nuen barru-barruan, zure eza begietan, eta ezpainenetan hotza, agurraren mina iragarriko banu bezala.

Hurbildu nintzaion, bai, eta... "Je ne sais rien...Elle n'est pas á Paris...Elle est allé très loin...Elle...Elle..."

Galdu nuen esperantza, ametsen iraupenerako zutabe hautsiezina...

Zain bezala gelditu nintzen, zure begietan irakurritako sua neuretzat gorde nuen eta " izan behar dena izango da" esan nion neure buruari.

Eta gaur, martxoaren 11an egunkarian aurkitu zaitut, zu eta zure zuzenbidea.

Asteburu luzearen aitzakian etxera etorria naiz; goizean egunkaria zabaldu dut, zuzenean Mugalariko kontakizunetara jo dut eta... niretako zen idatzitakoa... zuk idatzitakoa... baina, ez dut ulertzen zure lagun Rosek zergatik ez zidan gutunik eman, ez haren portaera arraroa, iheskorra... Parisera itzultzean jakin behar dut... baina, nolatan azaldu da gutuna egunkarian?

Gaur bertan doakizu gutun hau zurean agertzen den zuzenbidera. Hor izango al zara...

Itzuliko zara Parisera?... Noiz ikusiko zaitut?... Edo...Zer?

Nik Parisera itzuli beharra dut, ikasketak alde batetik, baina lana ere han daukat zain. Hango zuzenbidea idatziko dut hemen, gutun hau Iruñatik iritsiko bazaizu ere....

Ez dakit maite zaitudala esan...edo...nahi behintzat nahi zaitut...

Emaila:

arsadi@hotmail.com

Aratz Etxaburu Labrit

Rue des peinteurs

12eme arrondissement.

Paris

France

Kalenek Aratzi.

Bilbon 2006ko maiatzaren 15ean.

Aratz!

Ez, nik ez diot inongo egunkariri bidali, ez eta bidaliko ere zuretzat bakarrik behar zuen idatzia, niretik zurerara, nire barrutik zure barrurakoa baizen esandakoa. Are gehiago, zuk bidali ote zenuen ere pasatu zitzaidan burutik, hori sinistu nahi ez banuen ere. Eta egunkarira deitu nuen haserre antzean edo arduratuta edo goibelduta edo ez dakit ondo zehazten zein aldarterekin.

Berriz bizitu egin naiz zure esanak irakurri ditudanean eta orain ia, ia berdin zait gertatu dena. Baina orduan bai, orduan egunkarira deitu nuen esplikazio eske. Korreoz iritsi omen zitzaien gutuna, argitaratzeko eskatzen zuen ohar batekin batera.

"Premiazkoa dirudi gutun hau galdu duenak igorri nahi duen mezua.

Unibertsitateko antzerki areto erdi-erdian aurkitu dut toles-toles eginda, irakurri eta, Bilbokoa, euskalduna izanik sinatzailea, zuengana zuzendu dut idatzia, eta irakurritakoan ados egongo zarete nirekin harreman baten hasiera izan daitekena alferrik galtzen ez dugula utziko pentsatzerakoan."

Kazetariei gustatu egin omen zaie eta Egunkariko larunbatetako "Mugalari" gehigarrian, kontakizunen atalean argitaratzea erabaki omen dute... Ez zait ondo iruditu hain norberenak diren bizipenak argitaratu izana eta hala ihardetsi diet, baina orain ez dakit, agian eskertu beharrean izango naiz berriz ere aurkitu nauzulako.

Orain okerrengana lagunak dira. Oraindik ez dit inork ezer esan, ea horrela pasatzen den.

Orduan egia zen... nik zuri eta zuk niri esandakoak bat zetozen... Ez da ametsa izan? Egun baten kontatuko dizut nire aldegitaren arrazoiak; Orain egoera baretu dela esan daiteke.

Esango nuke Euskal Herriak, Bilbok, nire etxeak, iraganak, kate motzez lotuta naukatela, urruntzen naizen guztietan tiraka-tiraka itzularazten nauten eta ikusiezin diren kate urgenteak. Ni, berriz, ohitu naiz etxetik kanpora luze gabe ibiltzen; oraingoan ordea, zein zaila gertatu zaidan etorrera!

Pozik nago zureak irakurri eta gero. Izan ere, hainbeste desiratu dut zure berri izatea! hainbeste desiratu zaitut zu! Agian patua nirekin errukitu eta aukeran jarri zaitu berriz bidean.

Aspaldiko egunetan egunerokoan etsipena besterik ez dut idatzi baina gaur, gaur leihoa ireki eta izan daitekeenaz hitz egingo diodala uste dut;

"Begiek dakite esaten berbek esan ezin dutena, nik zure begi bizi-bizietan irakurri nuen esan nahi zenidana eta ordutik dantza eroan dabilkit barruaren barrua..." edo antzeko zerbait.

Ez dizut Emailik bidaliko, laburra litzateke eta hotza...Gainera, beno! ez daukat ordenagailurik etxean.

Jakin nahiko nuke zer gertatu zen Roserekin, lagun mina ez bazen ere ez dut ulertzen bere jarrera esplikazio gabeko hori...! Edo beno, agian bai, bai... Tira, esango didazu...!

Eta ez, ez naiz Parisera itzuliko, oraingoz ez behintzat...

Badakizu? nire begi ninietan lekutxo bat hartu duzu... eta barruratxuago, bihotz ondo-ondoan, zerbait eraikitzen ari zarela esango nuke.

(Postarien greba dela eta hemen guztia atzeratuta dabil; ez dakit noiz jasoko duzun hau)

Kalen.

Aratzek Kaleni.

Parisen 2006ko Ekainaren 15ean.

Ei, Kalenka!

Buruan, gogoan, begietan, egunez, gauez... zu zauzkat.

Aspaldian frantsesa bihurtu da nire eguneroko hizkuntza; unibertsitatean, lanean, hemengo lagunekin... Eta oso gustura aritzen naiz zurekin euskaraz, neurean.

Bukatu ditut azterketak. Azkena Pentsamenduaren psikologia eta hizkuntzari dagokiona. Gogoratzen duzu "Emozioen erregulatzeaz" eta egindako aurkezpena? Bai, ostegun berezi hura... Ba udako ikastaroetan berriz aurkeztea eskatu didate eta ez dakit, agian baietza emango diet, atsegin dudan gaia da eta nire izaterako baliogarria.

Jo! ez dakizu Roserengana hurbildu eta zure berri ematen hasi nintzaionean gertatu zena! Negarrez hasi zitzaidan, erabat urduri. Azterketa aurreko minutuak ziren, kontatu nion gertatutako guztia eta hankaz gora bota zuen nire jakin-mina. Ez dakizu ondo zein istorio kontatu zidan... zu E.T.A.koa izandakoa zinela bazekiela, berak ez zuela ezer jakin nahi, ez zuela arazorik nahi eta zuk emandako gutuna bota egin zuela. Egundokoak eta bi ikusiko genituela bera gure "rollotan" inplikatzen bagenuen... Ni ahoa bete hortz, " Baina zer dio emakume honek? Zoratu egin al da?" Adierazi nahi nion erratuta zegoela, horrelako konturik ez zegoela, ezagutzen zintudala eta... (baina egia da ez dakidala zuretik ia ezer) Eta Ke ba! alferrik izan ziren azalpen guztiak. Kontua da badakidala gutuna ez zidala eman nahi izan eta nahita galdu edo egin zuela.

Ez dut ezer ulertzen Kalen, hemen berriz, ez daukat nori kontatu hark adierazitakoak. Lagunek esaten didate ez nagoela nire onenean baina,

zer esango diet ba? Hainbeste daukat barruan eta hain gutxi kontatzeko moduan.

Zure zain egon, ezin dut besterik egin.

Rosek esandakoak apur bat arduratuta utzi nau, badakit, ordea, zure gutunean esan zenidalako, ondo zaudela, eta horrek lasaitzen nau.

Egunero arratsaldeko 4retatik 8ak arte "Le musée des sciences" en egiten dut lan. Azken hilabetean planetariumeko bisitak gidatzea egokitu zait. Ez dakizu zein sentrazio berezia den unibertso osoa zure inguruan biraka sentitzea, lainorik gabeko zeru urdin-urdina, izarrez betea eta...borobila; borobila izateak eransten dio esanahi zabala, ertzik gabekoa, malgua, mugarik gabekoa edo. Mugarik gabekoak bihurtzen ditu borobiltasunak ametsak, aukerak, harremanak; eta bukaezinak; etengabe biraka berritzen; gure ikur borobiletan bizitza eta heriotza uztartzen diren bezala, amaiera gabeko biran.

Lan hori "egokitu" zaidala diot izarrak direlako, bestela ere, gaur egungo nire bizitokia. Hara begira aurkitzen zaitudalako zu eta zure lur emankor iduriko begiak, nireek erakarrita edo.

Bero, bero Paris izartsuan.

Aratz.

E! Gustatu zait "Kalenska" deitu izana. Aitak esaten zidan horrela txikitan, hura galdu nuenetik, ordea, ez nau inork "Kalenska" deitu gaur arte eta atsegin dut, bai, oso atsegin.

Zenbat gauza zuri argitzeko! Gaur asko luzatu gabe azalduko dizkizut handienak eta elkarrekin egongo garenean kontatuko dizkiogu elkarri kontatu beharrekoak.

Elkartuko garelako diot, Parisera itzuli beharrean nagoelako, unibertsitatean espedientearen trasladoarekin eta arazoak izan baitira eta neu joan beste aukerarik ez dut izango paperok era egokian bideratuko badira. Baina, beste egoera batean astuna gerta zitekeen eginbeharra, aitzakia ezin hobea da gaur zueganaino hurbiltzeko.

Konturatu zara nire aldean gaztea zarela ez da? Distantzia.

Irakaslea naiz, egun erdiko lanean aritzen naiz beste erdia ikasteko erabiltzen dudalako. Aurten sei hilabeteko baimena lortu dut psikologia ikasketak bukatzeko eta horri "Erasmus" beka gehitu zaio. Horregatik Paris eta Sorbona. Baina bizitzen hasi orduko bukatzen zait aspaldian bizi berrirako baimena, maitatzen hasi orduko iraganera itzuli beharra.

Parisen bizi nintekeen berriz, berriz sentitu; hemen naiz, ordea, betiko Bilbon.

Ez, sekula ez naiz E.T.A.kidea izan, nire aurreko bikotea, baina, atzerrian zen azkeneko zazpi urtetan eta bera izan zen Bilbora itzuli beharreko arrazoia. Hemen dago, ezkutaturik, noraezean, lagunaren beharrean, eta, ni nau lagun. Arriskua? Bai, baina hainbestetan jasan izan ditugu egoera zailagoak...! Pasatuko da. Noraeza izan da martxoan E.T.A.k iragarritako suten iraunkorraren ondoren Manuren aukera.

Asko ordain araziko liokete bere burua entregatuko balu eta, ez da kaiolako txoria. Iraganari kateatuta, ihes egin nahian eta ezinka bizi da. Hala ere horrela nahiago du, kartzelan egun bakar bat igarotzea baino.

Bizitzaren balioa asko aldatzen da heriotza gertu bizi izan eta gero; orduan, edozein modutan bizitzeak merezi duen galdetzen diozu zeure buruari eta, bizitzea erabakiz gero, egun bakoitzari, minutu bakoitzari, sentrazio bakoitzari intentsitate berezia eskaintzen diozu, eta bizitza, BIZITZA bihurtzen da; gauzen gainetik, sentimenduekin batera , eta, Axular gogora ekarriz, existitzen ez den gerorako utzi gabe orainean egiteko direnak.

Egun baten gatazka honetatik irteteko gai izango al gara! Elkarrekin bizi izaten ikasiko al dugu! Ezagutuko al du gure herriak justizia eta sosegua.

Paris eta zu azaldu zarete ezuste antzean ibilbide erdi-erdian. Biek ala biek nahi zaituztet, behar. Bilbon ezin daitekeena Parisen bai, zurekin bai.

Erakarpen, desio, maitasun begiradak eta barruan eragiten didaten zirrara besterik ez daukat; gutxi dirudien horrek ordea, itxaropena piztu du bizi-iraupenean eta ezin zitekeena posible bihurtu du. Ametsa zirudienak egi itxura hartzen du zure gutunetan. Eta badakizu? ez dut aspaldian egunerokoan ezer idatzi, orain zuri kontatzen dizkizut "nire gauzak"; nire gauza horiek "zu"z beteta daudelako izango da.

Nik ere bukatu ditut azterketak. Ez ditut denak gaindituko, seguru, baina emozioen kudeaketaren inguruan asko ikasten ari naizela ezingo dit inork ukatu.

Uztailaren 16ean iritsiko naiz "Gare du Nord"eko geltokira, arratsaldeko 6etan edo. Pariseko estatua dagoen tokian elkar gaitzke. Ez dut hotelik eta erreserbatu, hori zure esku utziko dut, bai? Oporretan nago eta alde horretatik ez dut itzultzeko presa handirik, baina tira, ikusiko dugu.

Oso urduri jartzen nau ikusiko zaitudala pentsatzeak, ez dakit zeintzuk izango diren nire lehen hitzak, idatzian hobeto moldatzen bainaiz ahozkoan baino. Agian isilik geldituko naiz edo interes gabeko gauzetaz hitz egingo dizut edo barrezka hasiko naiz edo aspertu egingo zaitut edo... Begietara bai, begietara zuzenduko natzaizu, har nazazun.

Kalenka. Bai... gustatzen zait.

...Zureganatuta naukazun denbora honetan ez diot nik neure buruari galdetu nor naizen, zenbatekoa naizen, noizkoa zaren zu, ez eta norekin edo norena zaren ere... neurri gabe erakarri nauzu, sentimendu bat barrutik azaleratu, eta hori, hori ez da borondatezkoa, hori ez da aukeratzen. Gurea gero dator, sentimendua onartu edo mila arrazoitan jantzitako ezetza aukeratzean; aurrera egin edo itzulerako bidea hartu nahi izatean; haizearekin batera kulunkatu ala kontrara hegan egiten saiatzean. Barruak, baina, temati, egoskor dirau berean. Hala dago nirea; ez ninduke, nahita ere, zugandik urruntzen utziko.

Emankortasuna, goxotasuna, sua, bizi-poza, zirrara, gogoa, maitemina... zelan neurtu adineka?

Izan daiteke, guk baino gehiago dakitenek, laster, ikusezina dena ere mailakatzeko neurri sistema asmatzea, baina gaur, baietzean edo ezetzean dago sentimenduaren neurketa; beroago ala bareago baina bai edo ez; ez dago 25, 35 edo 45ean neurtzerik.

Ez nau adinak arduratzen, maite ditugun beste batzuen sentimenduak bai ordea. Hala ere, benetakoak direnean sentitutakoak bideak berak erakusten digu non zapaldu.

Han izango naiz, zuk esan bezala, Pariseko estatuaren azpian, iristen zarenerako. Lanean trukea egin dut goizeko txandakoekin. Egun erdiko lan xumea dirudiena gaur egungo bizibide lasaia eta gustukoa dut.

Joango gara biok izarrak ikastera "nire" planetariumera.

Uztailaren 17an emango dut hitzaldia Udako Unibertsitatean; ondo ordainduko didate, alde batetik inteligentzia emozionalaren inguruko ikerketak berriak eta gutxi ezagutzen direnak direlako eta beste alde batetik "lizentziatua" izateak kategoria profesionala eransten diolako

eginkizunari (ja,ja...). Kontua da oso ondo etorriko zaidala, bai dirua, bai lan munduan lekutxo bat egiteko aukera. Gainera gustuko gaia dut eta nahiko nuke ondo egitea eta garbi azaltzea, beste gauza batzuen artean, emozio guztiak direla zilegi, ez txarrak, ez onak. Horiek erregulatzen asmatzeak ematen digula geure buruarekin eta munduarekin ondo sentitzea. Baina, hitz egingo dugu horren gainean ere zatozenean, seguru zeresana izango duzula eta.

Ea horko "arazoei" irteera egokia ematen diezun etorri aurretik.
Zure etorreran jarri dut egiten ari naizen guztiaren muga, kalenka.
Aste beteko distantzian naukazu , zain...

Aratz.

Kalenek Aratzi.

Parisen, uztailaren 17 an.

...Begiekin sorgindu ninduzun eta barruarekin maitemindu.

Frantziako hiriburuko tren geltokian frantsesaren doinu limurkorra; bozgorailutik etorrerak, irteerak...Frantsesak joan-etorrian "s' il vous plait" eta "pardon" batean aurrera eta atzera.

Hamaika bide aukeran, bat bakarra zuzena, ordea, "S'il vous plait, la statue de Paris?...Ce lá, á droite, tout avant et après à gaûche"...Azkenean ikusi nuen"... "C'est lá".

Urrunera ikusi zintudan eta bai, zure barrua nabaritu nuen nirearen bila, mezulari, begiak. Lurrak euria erakartzen duen bezala hurbildu nintzaizun, irribarrea ahoan, taupada bizkorrean bihotza, jakineko norabidean ausart oinak. Urrun, gertu, zu. Eskuak bakero beltzen poltsikotan sartuta, nikia ere beltza, gerrialdean praketan gordea, eta zure zapatila gorriak... Baina nik esango nuke zure kolorea urdin-urdina dela, zeruaren urdina ala itsasoaren urdin ilunagotxo, biak, zerua eta itsasoa baitira ederrak, zu bezala; biak mugagabeak; bareak adina eraginkorrak izaten dakitenak; biak lilurak gidatuta apropos galtzeko eremuak. Bai, nik urdin-urdinean aurkitu zintudan beltzez jantzita. Aurpegia pozik, begiek...begiek nirekin, ezpain bete-beteak irribarretsu, ile beltza uhinetan lepotik behera.

Urreratu nintzaizun mutu...mutu...mutu.

Eskua eskaini zenidan, eta nik eman, eta estutu biok ahurrak, eta gerturatu gorputzak, eta ezpainak elkartu genituen, eta zure barruaz nirea arakatu zenuen, dastatu ninduzun eta nik ere zure barrua arakatu eta dastatu zu, eta bozgorailua isildu barik frantsesez, eta frantsesak joan-etorrian, eta biok berba barik esan eta esan, eman eta eman.

Eskutik helduta aldendu ginen, nire maleta horia zure eskuan, motxila txikia nire bizkarrean.

Orduak ekarri zuten amestutako geroa, geroa oraina bihurtu arte.

Afaria Montmartren, garagardotxo bat edo beste zaharrean eta etxera. Atearen kolpeak markatu zuen besteak eta bion arteko distantzia, eta barruan, soseguz...Bat.

Eta egunsentia.

Uztailaren 17a da, egun berri-berria Parisen. Lo zauzkat aldamenean. Lehen orduetako eguzki izpiek keinu egiten dute egurrezko pertsiana zaharkituen irristuetatik . Aurpegiraino irristatu zait bat, bero, isil, maitekor. Ondotxoan uzkuritu natzaizu, errainua eta zure azal marraztuaren ferekaren gozoan. Maite zaitudala xuxurlatu dizut belarrira...

..Eguerdi aldera itzartu nauzu laztanka, lauretan Sorbonan egon beharra duzula eta ea bazkari pasada egingo dugun galdezka. Horrela egin dugu eta metroan abiatu gara hitzaldi eremurantz.

Gazte asko zegoen areto ezberdinetan; zure gaiari zegokionean sartzeko ere ilara luzea zain. Ez zenuen horrelakorik espero .

Borobil formako gela zen, zure planetariumaren antzera, ez da? Ormak urdinak ziren, jarleku gorriak lerro kurbatuetan antolatuta zeuden. Hogei lerro inguru eta beste hainbeste jarleku lerro bakoitzean.

Erdi ingurua aukeratu dut zu ondo ikusteko, hala ere urrutiegi zure begietatik.

Mahai gris eder baten jabe egin zaituzte eta han zure karpeta berdea antolatu duzu.

Bete egin da aretoa, frantsesez bete ere, gaztez bete. Ni, han, mundu arrotz samarrean bakarrik eta zurekin.

Jarlekuan pixka bat irrist egin dut postura hartzeko eta konturatzeke igaro dira hitzaldiak irau duen bi orduak.

Paris usaindu dugu ilunabarrera arte, pega-pega eginda ibili ditugu Sena ertzeko bideak, berandu baten konturatu garen arte asko hitz egin dugula biok eta jatetxe txikitxo hartan afalduko genuen beranduegi zela ez baligute esan. Etxerako bidea hartu dugu; poliki nahi genituen minutuak, azkar eraman gaituzte, ordea, oinek etxeraino; atearen beste aldera, geurera.

Presaka erantsi dizkidazu udako jantzi arinak eta nik zureak eransteke betarik eman barik biluztu zara niretzat. Zaren zarenean eman didazu... dena.

Jakin dute gure gorputzek gozaten, barruek jakin dutelako eskatzen, askatzen.

Gero zure begiek eta ezpainenek "*maite zaitut kalenka*" esan didate.

uztailaren 18a...

Ia ez dut lorik egin eta atzokoa gaur arte etorri zait. Zu lo zeunden bitartean bukatu dut guzti hau idazten zuretako eta niretako, geroan eragin gozoa izan dezan. Egurrezko mesanotxean utziko dizut laranja-urarekin batera.

Sorbonako idazkaritzara noa dokumentuak eguneratzera.

Gero arte, maite-maitia.

Kalenka.

Aratzek Kaleni.

Parisen, 2006ko uztailaren 18an

Hori eguzkia Pariseko zeru mugagabeen, urdineder tatuatua zurean.

Barrutik etorri zatzaizkit zeu, eta zeu, eta berriz zeu.

Begiradan, idatzietan, barru-barruan bizi duzun emakumerik ederrena, emakumeena aurkitu dut zukan, zure arima askean, zure iragan korapilotsuan, zure gorputz biluzian. Eta berbak esaten ez zekitena, eta begiek esandakotik harantzago, zure gorputzak jakin du guztia adierazten. Ez duzula lo handirik egin baina bai, nik behatu dut zure lo isila; barrutik kanpora datorren edertasun emankorra behatu; sentitu daitekeena, usaindu daitekeena eta nik ukitu dezakedana. Malgu gorputza atsedenean. Azal beltzaran ferekagarria; Soinbururaino datorkizu, tximatan lerratua, luzea izandako xarma gordetzen duen gaztaina koloreko ilea. Erakargarria lepoalde luzea; bularra nire eskuen neurri-neurrikoa; liraina izandako gerri sabel aldea, gaur oparoxeagoa, lasaia, eritasun bortitzak utzitako aztarnaz estigmatua; ipurmasail tentagarri ederrak, iztarren antzera...eta oinak... begira-begira egon natzaie lamia batenak izango ote ziren beldurrez; hain eder azaldu bazatzaizkit nonbaiten akatsa topatuko nuelakoan...Baina ez, ondo zaindutako behatzez apainduak, larruzko pultseraz inguratutako orkatilaraino datozkizu, dotore, puntura arte nireekin lianatura jolastu duten oinak.

Nola itzuli zuen Joseba Sarrionaindiak Mohamed Al-kaliren esana?...

*"Ez dizut esango goiz usaineko abotsa duzula,
Ez desertuko erreka naroa zarenik,
Ez dizut esango gazela begiak dituzula,
Ez zure ilea arratsaldeko haizea baino
Lehunagoa denik. Ez dizut esango zure gorputzak
Eguzki aldeko mendi magalen sosegua duela.
Ez bait da egia, zure gorputza nahiko normala da,
Baina zurekin ez nagoenean maleriaz gaisotzen naiz."*

"Ez" guzti horiek "bai" esateko erabili ditu maitaleak, baina, unibertsoa gauza ederrenetatik harantzago eraman du edertasuna, adierazi nahi dion maitasuna, eta azken esaldian bermatu du gorputzaren mugetatik harantzagoko sentimendua.

Egin ezazu "nire", eta zuretzat, poetaren eskaintza.

Egin dizudan eskanerlean kolorea erantsi nahi izan dizut, eta niretzat urdina aukeratu bazenuen, zurea urdinarekin oso ondo uztartzen den bat beharko lukeela pentsatu dut. Gorria agian, baina gorri sosegatu bat, bizia darion bizi izandako gorria, gorri-gorria ere ez baina duda bariko gorria. Gorrien artean, berezi-berezi bat, bakana delako zure kolorea.

Hurbildu natzaizu ohatze epelean, biona bilakatu den zure airea arnastearren, eta loak berezkoa duen erritmo geldian, zurekin batera irentsi dut bizia, biok batera bizi arnasa, eta loak hartu nahi izan nauenean pentsatu dut behin-behineko loa ala behin-betikoa ote zen hartuko ninduen hura, eta, badakizu? Ez dit axola izan, berdin azken hatsa izan balitz ere, han nengokeen, zurean.

Zure goizaldeko idatziarekin batera gordeko dut nire hau, hemen,
Parisen, egurrezko mesanotxearen azpiko kajoian...

Aratz.

Baina... arratsaldeko hirurak dira eta ez zara oraindik etxeratu...

Telebistak eman du berria:

" Après des coups de fusil á un contrôle des gendarmes aux environs de Reims, il est mort Manuel Aramendia Gabiria, activiste de l'organisation terroriste E.T.A., aujourd'hui en trêve. Il y a des détenues á l'université de la Sorbonne"

Erailketa susmoan, iraulketa barrenean, beldurra hatz puntetan, eta zu...

Atearen danbatekoarekin batera abiatu naiz zure bila...

Unibertsitate inguruan inork ez du jakin esaten zer, zelan, zergatik, nora...

Gendarmerien galdetu eta neu itaundu naute: nor naizen, zergatik galdetzen dudan, familia artekoa zaitudan...ez, ez didate zure berri eman.

Gaueko hamabiak dira. Zeharkatu berri dut orain arte besteak eta gure artekoa bereizten zuen ate gaur zentzugabea.

Zure Bilboko telefonora deitu dut. Ez dute hartu.

Ez dakit zer egin...

Aratzek Kaleni.

Parisen 2006ko uztailaren 22an.

...Abokatua...Hori egin nuen. Laguna nuen E.T.A.kideen defentsan aritutako Goienetxe Estensororen aholkua eta laguntza eskatu nuen.

Berari esker jakin dut non zauden; itaunketa egin dizutela; senar ohia eta zu, biok Parisen egotea susmagarria gertatzen zelako atxilotu zaituztela eta laster epaileak erabakiko duela gaur egungo behin-behineko kartzelaratzeari bertan behera uztea edo prozesuarekin jarraitzea.

Bitartean eskutitz bat jasotzeko eskubidea lortu du.

Badakit izan duela zurekin hitz egiteko aukera ere, eta triste, oso triste aurkitu zaituela. Kasua aztertu ondoren aske irteteko aukera asko dituzula ere badio Goienetxek. Epaitu zintuztela behin eta argi gelditu zela zure errugabetasuna eta Manuelekkin harreman eza. Gainera zure alde dagoela elkarrizketaren garaia izatea Euskal Herrian. Unibertsitatearen testigantza beharko dela dio, hemengo zure zeregina frogatu ahal izateko. Dagoeneko jarri da E.H.U.koekin harremanetan eta haien bitartez lortuko omen du Sorbonakoak bustitzea.

Pasatuko da Kalenka, pasatuko da mina, pasatuko da bakardadea, pasatuko da...iragana; dena pasatzen delako, betik pasatzen delako.

Orain ni naukazu eta nik zu zauzkat.

Ez dugu iraganik ez eta gerorik behar ondo sentitzeko; Behar duguna daukaguna bizitzea, oraina dastatzea da bakar-bakarrik.

Badakit sakon sentitzen dugula biok bizitzen ari garena, eta indar horri deitu diot eutsi zaitzan, bizitu eta berriz zeureganatu zaitez.

Zain dugu Montmartreko gure "Maison Rose", Gogoratzen duzu?...

Honekin batera, zure azkena irakurri ondoren idatzitakoa iritsiko zaizu Goienetxeren eskutik.

Badakit sentitzen nauzula...

Anatz.

Gaua da egunero barru honetan, gaua ziegan, gaua bihotzean, gaua esperantzan; heriotzaren gerizak estali duelako argia; malkoek ito dutelako poza; atzoko mamuek irentsi dutelako ekarri berri zenidan irria.

Manu hil egin da. Orain ondo dago. Bila zebilela ere esango nuke, aspaldi galdu baitzuen bizitzaren xarma, bizitzeko poza, bizi-gogoa. Heriotza, berez, zerbaiten bukaera da, eta segurutik beste zerbaiten hasiera... ate bat zeharkatzea.

Bizirik gauden bitartean da inguruko heriotza borrero ankerra. Bizirik jasaten ditugun min hotzak, barruko saminak dira azken heriotzaren aldean jasangaitzak. Eta horiek hartu dute nire barruan ostatu. Baina ostatua ere ez da betirako hartzen eta jakin behar dut neure etxea gobernatzen. Nahiago dut alde egiten behartu baino, gertatutakoa bere neurrian onartzea, barruan eragin didan atzerako ibilera berriz egitea eta, urteetan eraikitako bizi zutabeak bertan uztea, atzean, neurekin baina atzean...atzean. Horrela gaur nirekin bizi den etsipenak jakingo du agur esaten.

Hor zaudela jakitean, barruan, buganbilak loratu dira eta zutabeak estaltzen hasi, seguru.

Lau horma lau metro karratu inguratzen, ilun, heze; apalategi hutsa bazterrean, komuna bistan, ohe bakar, estu eta zikina. Ni geldirik, bertan eserita. Parean daukadan horman leihatila txikia, burdinez errejatua...Handik doaz koloreak airetan, gogora ekarri didazun etxe ertz larrosaraino, eta gu bion urdin eta gorriak nabarmen "maison" musikatuan.

Hodeietan galduz doaz koloreak, begiak itxita irudikatu ditudanak.
Berriz begiak irekitzean dena da gris iluna.

Bizitza gabeko iraupen hutsaren kontzientzia. Beldurra. Preso sentitzearen beldurra. lau hormen barruan preso... edo ikusezin diren mugak harrapatuak.

Itzartuko naiz bihar zure ondoan...eta maitatuko nauzu...

Kalenka.

Kalenek Aratzi.

La Santétik oso gertu, ate baten distantzian, abuztuaren 18an.

...Itoko nintzela grisean, ikusezin bihurtuko nintzela beltzean, galduko nintzela lau hormen artean.. eta... eguzkia amestu dut gauean, eta zuhaitzen ostotsa, eta haizearen ukitua, eta belar ihintzatuan etzanda zure itsas urdinak jantzi du nire gorputza... eta zeruaren kolorean margotu didazu berriz gogoa...

Ate baten burdin hotsak ekarri nau goizaldera.

Abokatua etorri da gartzelazainarekin batera... nire askatasuna ekarri du paper baten sinatuta.

Negarrez besarkatu dut gizona... eta papera.

Atzean utzi ditugu ateak, eta ateak, eta ateak, azken ateak Paris erdian utzi gaituen arte. Ate baten distantziak zelan markatu duen heriotza eta bizitza! zure eza eta zua.

Gorde egin naiz zure besarkadan eta estu lotu natzaizu gerrian. Txeratu nauzu begiradan.

Abuztuaren 18a da, goizeko 8etan. Zu eta Goienetxe kafetegiaren barran eta ni mahai txikitxo honetan kafesnearen zain nagoen bitartean kontatu diot hilabete honetan lagun min izan dudana paperari, askatasun berriaren kronika.

Poltsikoan gordeko ditut ziegan jasotako zure berbekin batera, gero irakurtzeko biok, etxean...

...Distantziak markatzen du harreman baten ia dena, erabakitzen du...hainbeste!

Eta distantzia neur daiteke kilometrotan, eta minututan, eta urtetan, eta sentitzeko eran, eta bizitzeko moduan, eta pentsamenduan, eta... distantzia batzuk eragin dezakete zalantza, etsipena, ardura... eta batez ere, distantzia.

Sentitzeko era ezberdina da hurbildu ezineko distantzia eragiten duena.

kilometrotan neur daitekeen distantzia berriz, batzuetan libre sentitzeko ezinbestekoa da. Iraganarekin lotzen gaituzten paisaiak iraganean uzteko bide bakarra. Hor ezinezko iruditzen zaizuna, Kalen, hemen, 8000 kilometrora, bai, nirekin.

Gogoratzen duzu? Emozioa eta berak eragiten duen erantzunaren artean ere distantzia behar da; distantzia denboran.

Abuztu bukaeran, elkarri agur esan genionean, ez nekien gaur Montréalén izango nintzenik, ez eta hemen hainbeste aurkituko nuenik ere; Badakizu aste beterako etorri nintzela eta...hilabete pasatu da.

Luze iritzita egongo zarela pentsatzen dut, baina ulertuko duzu irakurri ahala.

Aste bete iraun zuen Montréaléleko Unibertsitateko ikastaroak. Psikologia ikasten hasi behar zuen berrogei ikasle inguruko talde batekin egin nuen lana. Gustura, oso gustura.

Astean zehar irakasleak ezagutu nituen. ikasturte osorako seminarioa antolatu nahian zebiltzan eta laguntza eskatu zidaten. Laguntza hori ematearren gelditu nintzen, baina denbora honetan urte osorako lana

eskaini didate. Gainera hiria ezagutzen ari naiz eta, jo! liluratu bezala egin nau. Kultura ezberdin ugari bizi dira hemen elkarrekin horrelako giro nahastu, atseginean elkar bizi ere.

Oso hiri bizia da eta ez dakizu ibai ondoko alde zaharra zein erakargarria gertatzen zaidan!

Bada kolore bizi ezberdinez margotutako etxebizitza ilara bat, Le vieux port inguruan eta... bat, oso era berezian erakartzen nauena. Larroxtatik oso gertu dago bere kolorea, harrizko balkoi ederrarekin, zuriz margotutako harrizko balkoia, eta ohizkoa izan barik, bi zutabe luzatzen zaizkio ertzetatik gora, gainean duen balkoiarekin lotu arte. Miradore itxura hartzen du balkoiak.

Atea ere zuria da etxe larroxean, egurrezkoa eta handia; antigualeko aldaba bat du erditik goraxeago. Baina atea ez dago espaloia ren maila berdinean. Burdinazko eskailerak, hamar bat eskailera, zubi antzera altxatzen dira kaletik etxeko ateraino. Esan didate neguko elur handiei aurre egiteko pentsatuak direla eskailerok; elurra erraz garbitu ahal izateko.

Etxearen aurreko aldean astigar dotorea goratzen da.

Laster hasiko omen da hemen negu gogorra. imajinatzen duzu astigarra elurrez zuritua eta gu etxe larroxaren atetik beste aldera, epeletik hotza dastatzen?

...Ba hori kontatu nahi dizut, etxe hori bera alokatzeko aukera dudala eta alokatu egingo dudala. Biontzat propio egina dirudi.

Kalenka! moz ezazu behingoz iraganarekin lotuta zauzkan zilbor hestea eta etorri!

Zer diostazu?

Egingo dizudan harrera eta gero ez duzu hemendik alde egiterik nahi
izango...

Maite zaitut, maitatu nahi zaitut eta maita nazazun...

Aratz.

37, rue St Paul est

Vieux Montréal (QUEBEC)

CANADA.

Kalenek Aratzi.

2006ko urriaren 26an

Bilbotik Montréalera,

Hemendik hara,

Atzotik (g)aurrera.

Jo txabal! luze diozu? ossso luze joan dira egunak zure berba barik. Eskerrak lanpetuta ibili naizen hemen. Lana utzi, lagunei eta ahalik eta laburren esplikatu banoala, etxea alokairuan emateko agentziaz baldintzak itzartu... Zure gutuna hartu aurretik erabakita neukan hemendik alde egitea; Parisera joango nintzela, baina, aukeran, zu zauden Montréal horretara joatea nahiago dut.

Unibertsitatean Montréalén psikologia ikasketak bukatzeko dauzkadan bi asignaturen matrikula egiten lagundu didate eta seguru niretako moduko lanen bat aurkituko dugula bion artean.

Dena utzi eta aurkituko dugunaren beldur atzeratzen ditugu zoriontsu egin gaitzakeen erabakiak, ezagutzen ez dugunaren aurrean babesik gabe sentitzen garelako. Daukagunari lotzen gatzazkio, konturatu arte ezer ez daukagula ondo sentitzen ez bagara, eta hori asko galdu eta gero gertatzen da. Orduan ikasten dugu irautearen eta bizitzearen arteko diferentzia; ikasten dugu gerorik ez dagoela gaurko erabakirik gabe. Gaur zu zara nire erabakia; zu eta Montréal...eta banoakizu, gutun honekin batera.

Distantziaz aritu zara, Aratz, era askotako distantziaz.

Kilometroak eragiten dutena markatu dut arkatzez munduko mapan eta gero, borratu; atzotik urrundu eta zugaraino eramango nauen bidea delako mapako distantzia.

Urtetan neur daitekeen distantzia moztu ezina da eta hor utziko dugu.

Gainontzeko distantzia posibleek ez dute gaur gudan tokirik aurkitzen, besoz-beso baikoaz bidean. Begiek jakin zuten aspaldi antzematen. Gorputzek hitz egin zuten handik laster. Hitzek asmatu dute esaten, eta, gure bizitzek bermatzen dute gaur.

Aireportuan hara eta hona pertsonak. Ni banoa, eta beste batzuk badatoz. Agian, nik utzitako etxean aurkituko du datorren edonork nik hemendik urrun bilatu nahi dudana.

Bere burua aurkeztu du pilotuak, eta hegaldiaren nondik norakoak azaldu.

Gainditu ditugu Bilboko hodei beltzak. Eguzkia etorri zait pozik leihatilaraino... eta zure urdinederra...

Kalenka...

... Ate bat zeharkatzea...